



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior

## Zerbitzuen merkataritza

---

2021.01.01tik aurrera, Erresuma Batuko agintariek EBko merkatu bakarraren esparruan emandako baimenak ez dira baliozkoak izango. Horrek garrantzi berezia du finantza-zerbitzuen, garraioaren, ikus-entzunezkoen, komunikabideen eta energia-zerbitzuen arloetan.

Batasuneko merkatura sartzeko, Erresuma Batuan kokatutako zerbitzu-hornitzaileek eta profesionalek frogatu beharko dute betetzen dituztela EBk atzerriko herritarrentzat eta/edo EBtik kanpoko enpresentzat ezarritako arauak, prozedurak eta/edo baimenak.

Era berean, Europar Batasunean kokatuta dauden eta Erresuma Batuan lan egiten duten EBko zerbitzu-hornitzaileek eta profesionalek Erresuma Batuko dagozkion arau guztiak betetzen dituztela frogatu beharko dute.

- **Finantza-zerbitzuak:** Erresuma Batutik EB osoan zerbitzuak emateko baimenak aplikagarriak izateari uzten diote. Erresuma Batuek EBri finantza-zerbitzuak eman ahal izateko, Estatu kide horretako arauak hirugarren herrialdeentzat aurrikusitakoa bete beharko da.
- **Hegazkingintza:** Bidaiariak, posta eta/edo karga airez garraiatzeko Erresuma Batuek emandako ustiapen-lizentzien titular diren hegazkin-konpainiek ezingo dute aire-garraioa zerbitzurik eman EB barruan.
- **Errepide bidezko garraioko operadoreak:** Erresuma Batuan kokatutako operadoreek jada ez dute Batasuneko lizentziarik izango. Beraz, jada ez dute baliatuko lizentzia horrek dakarren merkatu bakarrerako sarbide-eskubideen sistema automatikoa, eta, bereziki, EBko operadoreek bidaiatzeko eta merkantziak EBtik barrena garraiatzeko duten eskubidea. Gainera, Erresuma Batua eta EB zeharkatzeko egun beharreko izapideetan emango diren aldaketek garraioko eta logistikako operadoreei eragingo die. Mugako izapideek gidariei, bidaiariei eta mugaz gaindiko langileei ere eragingo diete. Horren barruan sartzen dira pertsonen mugako kontrolak – sartzeko eta egoteko baldintzak egiaztatzea, pasaporteak zigilatzea, eta, hala badagokio, bisatu-baldintzak.
- **Lanbide-kualifikazioak:** Lanbide-kualifikazioak aitortzeari buruzko EBko arauak jada ez dira Erresuma Batuan aplikagarri izango. Erresuma Batuko herritarrek, kualifikazioak non eskuratu dituzten alde batera utzita, eta Erresuma Batuan eskuratutako kalifikazioak dituzten EBko herritarrek dagokien Estatu kidean formalki aitortzea beharko dute, herrialde horren hirugarren herrialdeetako kalifikazioak aitortzeko arauetan oinarrituta.